

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

30/2020 Mozioa, ekainaren 17koa, COVID19ak eragindako krisi soziosanitarioak Arabako tokiko erakundeen finantzaketan izan dituen ondorioei eta arlo horretan hartu beharreko neurriei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

30/2020 Mozioa, ekainaren 17koa, COVID19ak eragindako krisi soziosanitarioak Arabako tokiko erakundeen finantzaketan izan dituen ondorioei eta arlo horretan hartu beharreko neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Estatuko Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari eskatzen diete baimena eman dezatela tokiko erakundeek dituzten gerakinak erabili ahal izateko udalek beharrezko inbertsio sozialak egin ditzaten, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko. Horretarako, hala egitea eragozten duen Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea aldatu beharko da.

2. Arabako Batzar Nagusiek Estatuko Gobernuari eta euskal erakundeei eskatzen diete beharrezko erabakiak har daitezela COVID-19aren ondorio ekonomikoari aurre egiteko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote tokiko erakundeei zuzenduriko finantzaketa-ildo foralari euts diezaiola.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote tokiko erakundeekin elkarlanean jarrai dezala, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren erabakiak hartze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA